



Lau parking itxi eta trafiko aldaketak Aste Nagusia dela eta

R.B. / BILBO

Aste Nagusia etortzearekin batera, arazoak sortzen dira kotxe gidarientzat. Udaletxeko arduradunek, lau parking eta beste kale batzuk itxi dituzte. Horrez gain, hamabost autobus zerbitzu aldatu egingo dira hildaren hogeitazortzira arte.

Sendeja kaletik, Askaorantz doazen kotxeak, Esperanzatik jo behar dute, baina kale hau ere itxita egongo da sokamuturra orduetan. Nafarroa kalea, moztuta egongo da plaza zirkularretik beherantz eta zabalik Bailen kaletik gorantz. Ribera-ko pasealekuari dagokionez, ezingo da kotxerik ibili Merced zubitik Are-naleraino eta Ripa kalerako bideak Amistad eta Villariasetik moztuta egongo dira.

Bilbobusak gauerdiraino ibiko dira, jai tokitik eta auzotaraino doazen zerbitzuetan. 15 zerbitzu dira aldaketak izango dituztenak, Udaletxeak hartutako trafiko neurriak direla eta.



Arenaleko aparkalekua txosnaz beteta dago jaietan. M. RAWIREZ

Albia lorategiko taxi geltokia, Mazarredo kalean egongo da, Ibañez de Bilbao eta Colon de Larreategi artean, eta Bailen kalekoa, Santandereko geltokiaren aurrean.

Enparantza berriko parkinga, toki alokatua dutenak bakarrik erabili ahal izango dute eta Correo kaletik bertara heltzeko, San Nikolas plaza-tik etorri behar dute. Arenaleko aparkalekua itxita egongo da eta hildaren 25ean ezin izango da kotxea utzi Particular Quintana eta Jose An-

selmo Clave kaleetan. Aste Nagusi-an parte hartu nahi duten guztiek, hainbat garraiobide dute. Alde bate-tik, Eusko Trenbide-ak-eko ardura-dunek aditzera eman dutenez, zerbitzu berezia jarriko da gauetz Aste Nagusia dela eta. Gauero trenak jarriko dira Bilbo-Plentzia, Bilbo-Lezama eta Bilbo-Durango ibilbideetan. Autobusei dagokienez, Diputazioak zerbitzu berezi batzuk jarri di-tu atzotik eta jaiak amaitu arte. Santur-tzitik Bilbora autobusak irtengo dira

hiru ordu laurdenero, Barakaldorako auto-busekin gertatuko den bezala. Sestao eta Errepelagara orduero irtengo dira eta Leza-mara, ordu t'erdi-ro. Basauriko autobusak, Begoña- Galdakoa-koak eta Muskizekoak orduero aterako dira, Atxuri, Udaletxe eta Zabalburu plazatik. Guzti hau ikusirik, hobe kotxea etxean utzi eta Bilbora auto-busez edo trenez etor-tzea.

Konpartsak

Hau Pittu Hau

BILBO

Hau Pittu Hau Bilboko Aste Nagusi-ko konpartsa euskaldun bakarra dugu. Kideek azaltzen dutenez, beren helburua «euskararen eta euskal kulturaren defentsa» da. Orain dela lau urte sortu zen konpartsa honetako partaide guztiak bizkaitarrak dira eta beren maoizko frakak, alkandora gorria eta txapel beltzogatik ezagutzen dira kalean. Hirurogeitamar inguru dira, ikusteko bezainbat, beraz.

Urte osoan zehar euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten konpartsa honetako partaideek, jaietan ere euskarak behar duen presentzia eta pisua izan dezan aldarrikatzen dute. «Ekitaldi eta ekintzak euskaraz prestatzen ditugu eta era

berean, gure txosnara hurbiltzen direnei, behintzat, euskaraz eskatzen irakasten saiatzen gara. Hau da, norbaitek esaten badigu, 'dos tintos y un claro' guk euskaraz erantzuten diogu 'bi beltz eta gorri bat'.

Hau Pittu Hauko kideek konpartsen lehiaketan, bazkarian, olinpiadetan eta goitiberen jaietsieran ere parte hartzeko asmoa daukate. Ekintza 'ofizial' hauetaz gain, Hau Pittu Haukoen kolore gorri-urdin-beltzak Ikurrinaren omenaldian eta intsumisioen aurkezpenen ikusi ahal izango ditugu. «Intsumisioen eta euskararen artean lotura badagoela ikusten dugu. Batzuk zein bestea espeteraturik bait daude», kontatzen digute.

Beno, Hau Pittu Hau, ikusiko gara txosnan, lanean jartzen ez gaituzuen bitartean...



BILBOKO Udaletxean ongi etorria egin zitzaie aurtengo Aste Nagusiko txupineroa eta pregoilariari. JOSE SIMALEN argazkian ikus daitekeenez, beren jantzi ofizialekin dotore agertu zitzaizkigun Miren Barutia Hau Pittu Hau konpartsa-kidea eta Pello Zubiria **EUSKALDUNON EGUNKARIA**ko zuzendaria.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

EKIALDIAK TXOSNA INGURUAN
KALERATU ZURE EUSKARA

**JAITAN ERE EUSKARAZ!
HAU PITTU HAU!**

INDIA, NEPAL, EGIPTO, THAILANDIA...

Aldo. Mazarredo 4. 4 C BILBO TFNOA.: 94 - 424 00 11



LASAI

23an IREKIKO DUGU

HERRIKO TABERNA

EGUNEROKO MENUA

**UNAI
TABERNA**

GIRO JATORRA

**UNAI
TABERNAREN
BOKATA BEREZIAK
DASTATU**

SOMERAKO KANTOI TALDEA
BILBO ZAHARRA